



Zapalkuntzaren hiztegia



XIMUN FUCHS
ANTZERKILARIA

Markina-Xemeingo *Dibertimendua* bikainaren ondotik, lagun batek tabernan erran zidan haren ustez, euskararena zapalkuntzen artean azken kezka bilakatu zela. Ardo pare baten ondotik, proposamena luzatu zidan: zapalkuntza isilaren hiztegia zabaldu behar genuke, feminismoak garatu duenaren antzekoa. Hordagoari eutsiz, horra nire ekarpena:

Euskarafobia: euskara entzute hutsak hotzikarak eta jarrera erasokorrek eragiten dizkion pertsona. Korrikan parte hartzeko ezintasunaz sufritzen du. Azaleko azkura eta begietako gorritasuna agertzen zaizkio euskara eskakizunei buruz hitz egiten entzute hutsarekin; nahasmena eragiten dio eta *apartheid*, *intolerantzia*, *ghetto*, *jazarpena* edo *bazterkeria* hitzak kontra zentzuan frenetikoki erabiltzen hasten da.

Basque washing: euskararekiko alegiazko maitasun praktika, aldeko neurri eraginkorrek irmoki saihestuta. Etorkizun oparo baten promesa etengabe baliatuz, orainaldi-ko larrialdiari bizkarra emateko joera.

Euskaragorra: entzumen selektiboaz sufritzen duen euskal herritarra. Keinu nabarmenen laguntzaz errandako "bi kafe plazer baduzu" esaldi xumeari "*je ne comprends pas*" edo "*no entiendo vasco*" erantzuten diena. Nazioartekotu lezake gaitza "*can i help you?*" esanez, ulermenetik at euskara bera saihesteko bidea normalizatuta.

Euskaritsua: hautuzko ezjakintasunak bultzaturik, euskal ekimenez batere jakitun ez dena, izan hizkuntza nola kultura. Euskaritsuak, bera mundutarra denez, euskaldunak itxiak eta lokalak direla uste du.

Xuri ona: euskarafobia aktibo-pasiboa praktikatzan duten egituretan euskara ku-

'Euskaritsua': hautuzko ezjakintasunak bultzaturik, euskal ekimenez batere jakitun ez dena, izan hizkuntza nola kultura. Euskaldunak itxiak eta lokalak direla uste du

poa betetzen duen domestikatua. Bere irudi publikoa zaintzen du anitz (salbatzaitzat jotzen du haren burua). Haren eginkizuna: frogatzea, euskalduna izan arren, ez dela besteak bezalako euskalduna, besteak bezain beltza. Ez du sistemaren beraren oinarria zalantzan jartzen. Bere erosotasun ekonomikoa euskararen zapalkuntzaren aliatu isila bihurtu da.

Zibilizatu berria: baztertua izatetik, xurien artean leku bat izatera pasatu dena; ilunpetik igo eta zibilizazioaren argitan itsutu dena. Euskaldun izateaz sufritu du bere garaian. Sistemaren nondik norakoa ulertu duen harroa. Etxekoek ez dute preziatzen, eta frantses edo espainiar burgesia kulturalak errotik gutxiesten du.

Euskaralferra: administrazioko, irakaskuntzako edo kulturako langileak etengabeko umiliazioari aurre egiteko garatu duen nortasuna. Jarrera kutsakorra du: nagikeria erresistentziarako joera bezala ulertu badaiteke, kantitate homeopatiatik ateraz gero, euskalgintza ito lezake inertziaren lokatzean.

Euskara-checkzalea: minimoetara jotzeko joera duen euskal herritar arrunta. Ihauteriak, Olentzero, sagardotegia...: bere urteko "to do" zerrendako galdu ezinezkoak "check" batekin betetzen dituen.

Euskañola: ustez euskaraz mintzo den, baina esaldiak etengabe gaztelaniaz amaitzen dituen hego euskal herritar akulturatua. Film, liburu, edo egunerokotasuneko erreferentzia guztiak gaztelaniazkoak dituena.

Gatobasque(a): Iparraldeko akulturatua. Aviron Bayonnais, *gateau basque*, eta Ezpeletako biperra euskal erreferentziatza dituen. Herri Urrats, Korrika, San Fermin edo Nafarroaren Egunezik pasatu liteke mozkorraldi galanta biltzeko bada.

Euskarakuota: administrazio publikoan hizkuntza gaitasun titulua izatea frogatzeagatik lanpostua lortu duena. Bere ardura eta erabakietan euskararen presentzia eta berme minimoetara lerratze gaitasuna garatzen ditu.

Supremazista/esentzialista: burgesia kulturalean errotutako euskal herritarra. Harentzat, euskal kulturaren arazo nagusia formakuntza eskasia da. Haren ustez, kalitate apaleko ekoizpenak egiten dira frantses edo espainiar kulturarekin konparatzen denean. Ezker nahiz eskuintekoa izan liteke.

Hiztegi hau ez da lehena, ezta azkena ere [hiztegi osatua: argia.eus/argia-astekaria/2959]. Bakoitzak hobetu, zuzendu edo erantsi beza nahi beste.

"Gaizki adieraztea, munduko zorigaitzekin bat egitea da. Ez izendatzea, aldiz, gure gizatasunari uko egitea", Albert Camus. ●